

6. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa baten funtzionamendua ezin da posiblea izan baliabide egokiak izan gabe. iPAi S.L.-ren kasuan, baliabide nagusiak materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak dira, eta horiek modu on batean kudeatzea ezinbestekoa da.

Lehenik eta behin, **dirua** behar da. Diru hori erabiliko da patineteak erosteko, tailerra prestatzeko, furgoneta bat erosi edo alokatzeko eta web orrialdea eta aplikazioa garatzeko. Hasierako inbertsio hau gabe, enpresa ezingo litzateke martxan jarri.



Bigarrenik, **patinete elektrikoak** dira enpresaren oinarria. Kalitate handikoak eta iraunkorrak izango dira, erosoak eta seguruak. Patineteak ondo mantentzea ezinbestekoa da bezeroen konfiantza izateko. Egoera onean dauden patineteek ez dute istripu arriskurik eta mantentze gastuak murrizten dituzte. Adibidez, patinete bakoitza astean behin egiaztatuko da eta akats txikienak konponduko dira, arazoak ez egoteko.



Hirugarrenik, **patinete tailer** bat beharko dugu. Tailer honetan konponketak, mantentze lanak... egingo dira. Mekanikariek patinete bakoitza aztertuko dute, bateria, gurpilak eta motorra ondo egiaztatuz. Horrela, bezeroek beti patinete seguru eta ondo funtzionatzen dutenak erabiliko dituzte.



Gainera,, furgoneta bat izango dugu patineteak biltzeko eta leku batetik bestera eramateko. Honek logistika errazten du eta enpresaren kudeaketa azkartzen du. Azkenik, langileak ezinbestekoak dira. Langileek patineteak prestatu, mantendu eta bezeroei arreta emango diete. Langileen prestakuntza ona ezinbestekoa da zerbitzuaren kalitatea bermatzeko



Beste baliabide garrantzitsu bat **web** eta **plataforma digitala** da. Bezeroek erraztasunarekin alokatu behar dute patineteak, ordutegiak ikusi eta ordainketa egin ahal izateko. Baliabide teknologikoak, ezinbestekoak dira gaur egungo merkatuan aritzeko .



Laburbilduz, iPAiS.L.-k baliabide fisiko, teknologiko eta giza baliabide oso ondo egokitua izan behar du, patinetearen egoera ona eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko. Baliabide bakoitza zaindu behar da, enpresaren iraunkortasuna eta bezeroen konfiantza mantentzeko.